

TBAI Softwareetarako komunikazioak PRO/PREN



Igorlearen ziurtagiria: nahitaezkoa da ziurtagiri bat aurkeztea Rest zerbitzuari https bidez deitzeko.

Eskema: balidatu bidali beharreko XMLak XSD eskemaren balidazioa gainditzen duela bidali aurretik.

Oinarrizko datuak: ziurtatu oinarrizko datuak espero den formatuan adierazten dituzula.

Igorlearen identitatea: bidalketan erabilitako ziurtagiriak igorlearena, haren ordezkariarena, gizarte lankide batena edo igorleak onartutako gailu batena izan behar du.

Arazoak eskemarekin

- POSTean iristen den edukiak XML TicketBAI fitxategia izan behar du, ezer gehitu gabe.
 - Ziurtatu bidalketan http goiburu hau sartu duzula: **Content-Type: Application/xml; charset = UTF-8.**
 - Fitxategiak ez du konprimatuta joan behar.
 - Ziurtatu UTF8 kodifikazioa erabiltzen duzula
- ```
<ApellidosNombreRazonSocial>SUDRE</ApellidosNombreRazonSocial>
<CodigoPostal>64700</CodigoPostal>
<Direccion>37, rue de l'Industrie</Direccion>
```

### Sinadura arazoak

- Ziurtatu XML fitxategiaren sinadura zuzena dela. Horretarako, Interneten eskuragarri dauden egiaztatzaileak erabil ditzakezu, [IZENPEren balidatzailea](#), esate baterako.
- Ziurtatu bidalketa programa ez dela **kodifikazioa aldatzen ari bidalketan**.
- Ziurtatu fitxategia sinatu ondoren ez duzula **aldaketarik** sartzen haren edukian.
- Sinaduraren formatuak **Xades Epes Enveloped** motakoa izan behar du, bestela eskemak errefusatu egingo du.

**XML fitxategian sartu beharreko datuei buruzko gomendioak:**

### Informatu beharreko eremuen formatuak:

- Igorlearen eta hartzaileen edo bezeroen IFZ: ez da onartuko [a-z | A-Z] edo zenbakizkoa ez den karaktererik, eta luzerak bederatzikoa izan behar du. Softwareak ez luke utzi beharko okerreko formatua duten IFZkn sortzen.

```
<IDDestinatario>
<NIF>A20/078540</NIF>
```



XML batek IFZ hori badu, errefusatu egingo da, eskema ez gainditzeagatik

- IFZ\_BEZ: ES + IFZ izan behar du
- Datak DD-MM-YYYY formatuan adieraziko dira beti (\d {2,2} -\d {2,2} -\d {4,4})

- Bada eremu sail bat balio baliodunen zerrenda bat erabilia bakarrik bete behar dena: herrialdearen kodea, egoitzako herrialdeko identifikazio motak, hainbat hartzaile, faktura zuzentzailearen kodea, faktura zuzentzailearen mota, BEZaren araubide bereziaren gakoa. Ikus xehetasunak hemen: [I. Eranskina: TicketBAI eragiketen alta fitxategiaren egitura eta baliozkotzeak](#). (PDF)
- Nahitaezko eremuak: nahitaezko eremu bat bete gabe uzten baduzu, XMLa errefusatu egingo da, eskemaren balidazioa ez gainditzeagatik

`<FechaExpedicionFacturaAnterior/>`

#### Faktura seriea:

- Faktura seriea eremua zure fakturen identifikazioaren parte bada, fakturari erreferentzia egiten dion kasu guztietan bete behar da. Eremu hori XSD fitxategian aukerakoa izateak ez du esan nahi serie bat aipatu gabe utzi daitekeenik hurrengo ekintzetarako:

- Faktura baliogabetzeko
- Faktura zuzentzeko
- Kateamenduan aurreko faktura bat dela adierazteko

Faktura002.xml

`<CabeceraFactura>`

`<SerieFactura>TB-2021-S</SerieFactura>`

`<NumFactura>2</NumFactura>`

`<FechaExpedicionFactura>22-01-2021</FechaExpedicionFactura>`

Faktura003.xml

`<EncadenamientoFacturaAnterior>`

`<SerieFacturaAnterior/>`

`<NumFacturaAnterior>2</NumFacturaAnterior>`

`<FechaExpedicionFacturaAnterior>22-01-2021</FechaExpedicionFacturaAnterior>`



- BIHra behartutakoen arreta:

- SerieFactura + NumeroFactura TicketBAIko kateaketak BIHren SerieNumeroFactura eremua izan behar du zehazki.



- Zenbakitzeko gomendioak:

- Ez sartu karaktere berezirik faktura seriean, eta erabili zenbakizko karaktereak bakarrik.
- Aukera bat izan daiteke seriean faktura mota eta jaulkipen urtea jasotzea, eta faktura zenbakia zenbakizko sekuentziarako soilik erabiltzea.

#### Lerroen deskontua:

- Ez adierazi deskontua portzentaje gisa. Zenbatekoa eurotan adierazi behar da.
- Eman deskontuaren berri, halakorik dagoenean edo aplikatzen denean (nahiz eta eremua aukerakoa izan XSD fitxategian).
- Deskontuaren zenbatekoak positiboa izan behar du beti. Beraz, zerga oinarritik kendu behar ela ulertzen da.
- Fakturaren guztizko deskontu bat sartzeko (adibidez, goiz ordaintzeagatik), Zenbateko osoa eremuan adierazi deskontuaren zenbatekoa zeinu negatiboan.



10 kantitatea, 51 zenbateko unitarioa eta %20ko deskontua duen lerro bat honela informatu behar da:

```
<DescripcionDetalle>CALZADO</DescripcionDetalle>
<Cantidad>10.00</Cantidad>
<ImporteUnitario>51.00000000</ImporteUnitario>
<Descuento>102.00</Descuento>
<ImporteTotal>493.68</ImporteTotal>
```

#### Lerroko zenbatekoak

- Lerroko ImporteUnitario eremuak BEZik gabe joan behar du beti
- Lerroko ImporteTotal eremuak BEZakin joan behar du beti
- Gaizki informatutako ImporteUnitario eremua: kontuan izan lerroaren prezioa edo zenbateko unitarioa adierazteko 8 zenbaki dezimal dituzula. Ez moztu edo biribildu prezioari buruzko informazioa, balidazio ekonomikoen kalkuluetan deskoadratzeak gerta ez daitezzen.

```
<element name="ImporteUnitario" type="T:ImporteSgn12.8Type"/>
```

Benetako adibide okerrak:

%21eko BEZari lotutako eragiketak

Lerroaren ImporteTotal BEZakin joan behar du

Deskontuak eurotan joan behar du, ez portzentajetan, eta, gainera, lerroko ImporteTotal BEZakin joan behar du

```
<DescripcionDetalle>VARIOS</DescripcionDetalle>
<Cantidad>1.00</Cantidad>
<ImporteUnitario>9.09</ImporteUnitario>
<ImporteTotal>9.09</ImporteTotal>
```

```
<DescripcionDetalle>CALZADO</DescripcionDetalle>
<Cantidad>1.00</Cantidad>
<ImporteUnitario>50.00</ImporteUnitario>
<Descuento>20</Descuento>
<ImporteTotal>40.00</ImporteTotal>
```

#### Fakturaren zenbateko osoa

- Ez sartu RetencionSoportada ImporteTotal/Factura eremuan
- QRren URLan ImporteTotalFactura eremua XML fitxategian adierazi den bezala bete behar da (Jasandako atxikipenik gabe)

#### BEZaren eta zerga garrantzia duten eragiketen araubide bereziaren gakoak:

- Kontuan izan gakoaren artean dagoen bateraezintasuna. Adibidez, faktura berean ezin dituzu 01 eta 02 gakoak informatu
- Gakoak informatzeko ordena garrantzitsua da. Berrikusi gakoari buruzko balidazioak dokumentu honetan: [TicketBAI alta fitxategiaren balioztapen eta erroreen zerrenda](#) (PDF)

#### Kateamendua

- Adierazi aurreko fakturako eremu guztiak: Seriea (baldin bazeukan), data.
- Kateamenduari buruzko informazio gehiago PDF eranskinean.

#### TicketBAI softwarearen lizentzia

- Softwarearen izena eta entitatearen IFZ erregistroan ageri bezala adierazi behar dira. Kontsultatu [Software Erregistroaren](#) zer datu zehatzekin erregistratu zenuen zure softwarea.
- Erne, IZENA eremuan softwarearen izena jarri behar da, eta ez entitate garatzailearena.
- Nahikoa da zure softwarea ogasun batean erregistratzea. Erregistroek TicketBAI sistema guztietarako balio dute.

```

<Software>
<LicenciaTBAI>TBAIGI12345678901234</LicenciaTBAI>
<EntidadDesarrolladora>
 <NIF>P2000000F</NIF>
</EntidadDesarrolladora>
<Nombre>FAKTURABAI</Nombre>
<Version>1.0</Version>
</Software>

```

#### Gailuaren ziurtagiriak:

- Fakturak bidaltzeko ulean gailuaren ziurtagiriak erabiltzen badituzu, gogoratu erabiltzaileari edo zergadunari adierazi behar diozula Egoitza Elektronikoa dagoen [Gailuen Erregistroaren](#) aplikaziora joan behar duela eta fakturak bidaltzen ari zaren gailua onartu.



Gailu bat behin onartu ondoren, ez da sortuko identitate igorleari lotutako oharrik.

```
<Codigo>013</Codigo>
```

```
<Descripcion>Aviso: Dispositivo remitente/firmante no registrado</Descripcion>
```

#### TicketBAI proba ingurunea eta TicketBAI ingurune errealak:

- Badago proba ingurune bat du, nahi dituzun faktura guztiak proba moduan bidaltzeko. Ingurune horretan alta emateko, erabili [TicketBAI proba ingurunerako gida](#) (PDF)
- Ez bidali proben fakturak ekoizpen ingurunera:
  - Ez erabili proba lizentziarik **TBAIGIPRE000000000001** ekoizpen ingurunean
  - Ez eta gezurrezko edo proba ziurtagirik ere existitzen ez diren erabiltzaileei lotuta e zbadaude: "A00000000"
  - Azken kontsumitzailea", "99999910G - TBAI PROBAK", ...

#### TicketBAIren azken nobedade nagusiak

- Argitaratuak:
  - [TicketBAI alta fitxategiaren balioztapen eta erroreen zerrenda](#) (PDF)
  - [TicketBAI baliogabetze fitxategiaren balioztapen eta erroreen zerrenda](#) (PDF)
- [TicketBAI betebeharraren konplimendua borondatez aurreratzeagatik araututako TicketBAI kenkari gehituaren epea luzatu da.](#)
- [TicketBAI borondatez ezartzeagatik araututako kenkaria aurreratzeko aukera.](#)
- Laster Rest ZUZENDU zerbitzu berriaren zehaztapenak argitaratuko dira.